



Ikasgaiaren programa

# EUSKAL HERRIAREN HISTORIA



IBAZABAL IKASTOLA

2023-24

1BTX

## 1. IKASGAIAREN HELBURUAK

**H1.** Euskal Herriko historiako gertakari eta prozesu nagusiak modu kronologiko eta logikoan ordenatuta azaltzea, protagonista eta eragile garrantzitsuenak identifikatuz, aztertuz, eta denboran eta espazioan kokatuz.

**H2.** Historiagrafiak finkatutako kontzeptuak eta terminoak egoki erabiltzea, hainbat informazio aztertuz eta iruzkinduz.

**H3.** Euskal gizarteari buruz norberak dituen ideiak eztabaidatzea eta kritikoki aztertzea, informazio berria kontuan hartuz, estereotipo eta aurreiritziak zuzenduz, eta azterketa historikoa etengabe berregiten den prozesu gisa ulertuz.

**H4.** Gizarte arazoan jatorria aztertzea, prozesu konplexu eta anitzak direla konturatuz.

## H4. IKASGAIAREN EDUKIAK

### 1. EBALUAZIOA

a. MITOAK: euskaldunon jatorria, euskararen jatorria, mitologia...

b. ERROMATARREN GARAIA: Testuingurua, zatiketa tribala, zatiketa geografikoa.

c. NAFAR ERRESUMA / ERDI AROA: Sarrera / testuingurua, Orreagako gudua, Iruñeko Erresumaren sorrera.

### 2. EBALUAZIOA

a. IRUÑEKO ERRESUMA → NAFAR ERRESUMA

b. GERRA KARLISTAK → ONDORIOAK

c. GERRA ZIBILA → ONDORIOAK

### 3. EBALUAZIOA

a. Bidera proiektua

-Ikasgai honetako edukien gutxi gora beherako banaketa hurrengoa da:

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	UNITATE DIDAKTIKOA						BIDERA PROIEKTUA
	1	2	3	4	5	6	
1. Ebaluaketa							
2. Ebaluaketa							
3. Ebaluaketa							

## 2. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Lanerako metodologiari dagokionez, hiru eratako lanketak izango dira nagusiki:

### JAKINTZAK ESKURATZEKO SAIOAK

Irakasleak gidatutako saioak izango dira eta bertan edukiak eta kontzeptuak landuko dira. Saio hauetarako, ikasleen parte hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da.

### JAKINTZAK PRAKTIKAN JARTZEKO SAIOAK

Era anitzetako lanen bitartez landutako edukiak eta hauen ulermenarekin erlazionatutako kompetentziak (helburuak) ebaluatuko dira. Lanetan edukien eta kontzeptu teorikoen ulermena eta azalpena baloratuko da, bai eta ebazpen prozeduran erabilitako hiztegia. Horrez gain, emandako azalpenen eta egindako planteamendu eta garapenen heldutasuna, arrazoiketa kritikoa eta sakontasuna baloratuko da.

### INTEGRAZIO JARDUERAK

Taldeka zein bakarka, hainbat zeregin gauzatu beharko dira saio hauetan, ikasgaiaren edukiak erlazionatu eta bereziki zientziak gizartean izan duen garapena, ekarpen nagusiak eta etorkizunera begirako erronkak landuko dira.

## 3. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzeko eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko hauek izango dira kontuan:

### GELAKO ZEREGINAK ETA ERRONKAK

Ariketaren edukiak barneratu izana ebaluatuko da eta hau erakustea. Egoerari aurre egiteko unean koherentzia, pertinentzia eta edukien erabilera egokia egin beharko du ikasleak eta honekin batera prozesua ere ebaluatuko da.

Zeregin bakoitza aurkeztean errubrika ere azalduko zaie zehazki egin beharrekoa jakin dezaten. Errubrika hauetan oinarrituz, ikasleak bere lanaren indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko aukera izango du.

#### INTEGRAZIO JARDUERAK

Integrazio jardueren bitartez, edukiak osatzeko aukera egongo da. Historiako hainbat gertaera/personai aztertuz. Integrazio jarduerak taldeka zein bakarkako zereginak izan daitezke.

Egin beharreko lanaren arabera moldatuko dira ebaluazio-irizpideak eta integrazio jardueraren azalpenarekin batera jasoko dira dagozkion ebaluazio-irizpideen deskribapena.

#### GELAKO JARDUNA

Gelako jardunak %30eko balioa izango du eta ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

-Euskara: Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.

-Parte hartzea

-Jarrera pro-aktiboa izatea: Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea...

-Errespetuz parte hartzea: Neurritz eta errespetuz parte hartzea eta azalpenak ez etetea.

-Entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak zein ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoaia eta jarrera zainduz.

-Elkarlana eta elkarbizitza

-Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea.

-Ingurukoak laguntzea.

-Autonomia

-Asistentzia: Ikasgaiari justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko. >5 hutsegiterekin zuzenean BERRESKURAPENA egin beharko da. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.

-Puntueltasuna: Irakaslea izango da klasean azkena sartzen. Berandu iristea hutsegite erdi gisa konputatuko da.

-Lana: Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak egitea...

-Lanak epe barruan entregatzea: Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.

-Hezkidetza: Ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua.

#### 4. KALIFIKAZIO-SISTEMA

##### HIRUHILEKO BAKOITZAREN KALIFIKAZIOA

Hiruhileko guztietan ikaslearen nota kalkulatzeko sistema hurrengoa izango da:

EBALUAZIO BAKOITZEKO KALIFIKAZIOA				
ATALA	BALIOA (%)	BALDINTZAK		
Lanak	60	Gainditu	Gainditu	Gainditu
Froga ebaluagarria	10			
Gelako jarduna	30			

Hiruhileko bakoitza gainditzeko bete beharreko baldintza GUZTIAK hurrengoak dira:

>Gelako zeregin, erronka eta integrazioa jardueren batz-bestekoa gainditzea. (6 puntutik 3)

> Froga ebaluagarrien batz-bestekoa gainditzea. ( puntu 1etik 0,5)

> Jarrera gaindituta izatea (3 puntutik 1,5)

##### IKASTURTEKO AMAIERAKO KALIFIKAZIOA

Ikasturteko nota 3. hiruhileko batz-besteko aritmetikoaren kalkuluaren bitartez egingo da.